

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Zuiako kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak, 2025. urterako

Udal Osoko Bilkurak 2025eko maiatzaren 15ean egindako ohiko saioan honako hau erabaki zuen:

– Administrazio batzordeei dirulaguntzak emateko deialdia onartzea, honako arlo hauetan: kontzejuen titulartasuneko ondasunak, argiteria publikoa, kultura- eta jai-jarduerak, kaleen eta bideen garbiketa, nekazaritzako eta abeltzaintzako bideen sarea mantentzea, neguko kanpaina, orokorra inbertsio-gastuetarako, ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratzea, lorezaintzako eta zonen, espazioen eta bideen garbiketako lanek eragindako gastuetarako eta, ondasunen inskripzioa jabetza-erregistroan burutzeko dirulaguntza horiek guztien oinarri arautzaileak onartzea.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2025eko gastuen aurrekontuko partiden 943.734.000, 943.734.010, 165.434.000, 163.227.030, 338.434.000, 410.227.011, 134.434.000, 943.434.000, 171.434.000 y, 943.434.000 kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn eta argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2025eko maiatzaren 29an

*Alkate-udalburua*

*UNAI GUTIÉRREZ URKIZA*

#### 2025EKO KONTZEJUENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, BEREN ESKUMENEN ETA AZPIEGITUREN ESPARRUAN

##### 1. Deialdiaren helburua

Diru-laguntzen bidez, udalerriko toki erakundeekin lankidetzan aritzea, aurrekontu mugen barruan, haien azpiegiturak hornitu eta jartzeko, hobetzeko, berriztatzeko, handitzeko, eta, kontzejuen jabetzakoak izan ez arren, herriaren zerbitzurako erabiltzen diren higiezin mantentze lanak egiteko, eta horretaz gain, zerbitzu egokiak emateko, herritar guztien bizitza maila hobetzen laguntze aldera, baldintza berberetan. Udal lurralde osoan garapen eraginkorra, uniformea eta koherentea lortzen saiatu.

##### 2. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradun izan daitezke Zuiako udalerrian legez eraturik dauden toki erakunde edo administrazio batzar guztiak, bakoitza bere eskumenen eta azpiegituren eremuan.

### 3. Diruz lagundu daitezkeen programak

Udalerrri honetako kontzejuen eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuei dagozkien ondorengo arloek jaso ahal izango dute diru-laguntza:

3.1. Kontzejuaren titularitateko ondasunetan egiten diren obrak eta inbertsioek: laguntza lerro hauen bidez lortu nahi da kontzejuei erraztasunak ematea eta administrazioak motibatzea azpiegiturak, zerbitzuak eta ondare ondasunak hobetzeko, beti ere haien herritar guztien onura helburu dutela, iraunkortasun eta lurralde orekaren irizpideen pean.

3.1. atalari dagozkion programa eta proiektuetarako eskabideak aurkezteko epearen azken eguna 2025eko azaroaren 30a izango da, eta egun horretara arte eta urtean zehar obretarako beharrezkotzat jotzen diren eskaerak aurkeztu ahal izango dira. Data hori alde batera utzita, kontzejuek 2025ean egin beharreko proiektuen edo programen benetako aurreikuspena aurkeztu beharko dute, ahalik eta zehatzen, ekainaren azken egun balioduna baino lehen, eskatutako laguntzen ebazpenak aurreratzeko.

Ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera, honako atalak desberdindu daitezke definizio honetan:

a) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren eta Obra txikien Programaren barruan finantzatutako obra eta inbertsioek Arabako Foru Aldundiak jasotakoaren diru-laguntza osagarri bat lortuko dute, eta diru-laguntza emateko foru-erakundeak aintzat hartutako aurrekontu diruz lagungarriaren ehuneko 98raino estaliko du. Kasuan kasuko obra edo inbertsioa Aldundiak oinarritzako azpiegiturat hartzen bada, aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 18a aplikatu ahal izango da diru-laguntza emateko, betiere kalkulu horren emaitza handiagoa bada.

Dirulaguntza hori bateragarria izango da kontzejuak beste edozein erakunde, entitate edo organismo publiko edo pribatutatik lor ditzakeenekin. Laguntzak bateragarriak izango dira, salbu eta obraren edo zerbitzuaren kostuaren ehuneko 100 gainditzen badute. Kasu horretan, udalaren konturako ekarpena ehuneko 100era arte murriztuko da.

Ehuneko berean subentzionatuko dira proiektuaren idaztea eta obraren zuzentzea, baldin eta legez hala eskatzen bada.

b) Hainbat erakunderen eta programen diru-laguntza, gutxienez aurrekontu osoaren ehuneko 20koa, izan duten ekipamenduetarako inbertsio eta erosketek aldearen ehuneko 50eko diru-laguntza izango dute, 30.000,00 euroko mugarekin kontzejuko eta urteko. Portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

c) Helburua energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna dituzten jarduketetan, diru-laguntza aurrekontuaren ehuneko 50 artekoa izango da. Jarduketan helburua edateko uraren kudeaketa eta ingurumenaren babesa badira, diru-laguntza aurrekontuaren ehuneko 25 artekoa izango da. Ehuneko 50 eta ehuneko 25eko portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

d) Beste entitate eta erakunde batzuek diruz lagundu gabeko gainerako obrek eta ekipamenduek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko diru-laguntza izango dute. Ehuneko 18ko portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

e) Kontzejuaren titulartasuneko ondasunen mantentze edo inbertsio-obrek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko diru-laguntza jasoko dute, betiere aurrekontu hori 1.500,00 eurotatik gorakoa bada (BEZik gabe).

f) Ehuneko 50eko diru-laguntza emango zaio, beste erakunde bat (udala, Eusko Jaurlaritz, aldundia, URA...) bere lurralde-eremuan egiten ari den lanez baliatuta, beste zerbitzu batzuetarako kanalizazioak sartu edo lurperatzeko lanak egiten baditu. Batzordeak hartuko du diru-laguntza hori emateko erabakia eta erakundeari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

g) Lorezaintza-lanek eta kontzejuen jabetzako eremuak, espazioak eta bideak garbitzeak eragindako gastuek ehuneko 80ko laguntza izango dute, erakunde eta ekitaldi bakoitzeko 1.800,00 euroko mugaraino. Laguntza hau 2025eko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean ordainduko da. Eskaera horiek 2025eko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Argiteria publikoaren ondoriozko gastuak estaltzeko, hobetu nahi den bidearen edo eremuaren arriskuaren balorazioa sartu beharko da azterlanean, emakumeentzako espazio seguruak sortzen laguntzeko eta arriskua eta bereziki ilunak diren edo arriskutsuak izan daitezkeen eremuak murrizteko.

Deialdiaren aurrez aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsorik ez da diruz lagunduko, ezta aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsioaren helburua aldatzen duenik ere, ezinbestekoa ez bada behintzat eta, betiere, eskaera aztertuta.

Altzarietarako diru-laguntzen kasuan, dagokion zerbitzua funtzionatzeko beharrezkoa den ekipamendua diruz lagunduko da, merkatuko batez besteko kalitateari dagokion prezioaren arabera.

3.2. Argiteria publikoa: urteko gastuaren ehuneko 95eko diru-laguntza. Diru-laguntza honen helburua da kontzeju bakoitzak arlo horretan egindako gastuan laguntzea, kaleko argiteria publikoan energia kontsumoa murrizteko xedea duten inbertsioak eta jarduketak egitea sustatuz eta aldarrikatuz, Zuiako energia eraginkortasuna eta indarra hobetze aldera.

Emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuek aurreko urteko abendutik indarreko urteko azarora arteko gastuen jatorrizko fakturak eta horien fotokopiak (konpultsatuak izan daitezzen) edo aldia eta gastua egiaztatzen dituen ziurtagiria/laburpena, konpainia hornitzaileak konpultsatzeko emandakoa, aurkeztuko dituzte indarrean den urteko abenduaren 15 baino lehen.

3.3. Kultura eta jai arloko jardueretarako diru-laguntzak: atal honen bidez, kontzejuetako kultur eta jai arloko jarduerak bultzatu nahi dira eta jarduera horiek sor ditzakeen gastuetan lagundu, auzokoen arteko harremanak eta herritarren talde zentzua sustatuz, bai kontzejuen barruan, bai kontzejuz kanpo ere. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko partaidetza eta generoen ohiko rolen haustura sustatu nahi da. Jarduera guztiek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, osasun-araudia barne.

Horien barruan, honakoak desberdintzen dira:

a) Urteko kopuru finkoa: kontzeju edo jai batzorde bakoitzari 500,00 euroko diru kopuru finkoa emango zaio herriko jaiak ospatzeko. Horretarako baldintzak hiru izango dira: jai egitarau elebiduna aurkeztea, bertan, ez jasotzea aisialdi- edo kultur-ekintzarik, emakumeen kontrako diskriminazioa eta/edo hauen kontrako indarkeria, bere modu ezberdinetan, gauzatzen dituztenik eta, azkenik, eta programa horrek oinarri honetako b) eta c) idatz-zatietan diruz lagundu daitezkeen jarduera bat gutxienez barne hartzea.

b) Kultur ekitaldiak: ehuneko 50eko diru-laguntza izango dute jai egitarauaren barruan egon eta kultur izaera nabarmen eta argia duten ekitaldiek sortutako gastuek. Gehieneko muga 3.500,00 eurokoa izango da. Dirulaguntzatik kanpo geratuko da emakumeen kontrako diskriminazioa eta/edo honen kontrako indarkeria, bere modu ezberdinetan, gauzatzen duen edozein programa.

Diru-laguntza hori ehuneko 70eraino helduko da, gehieneko muga 3.500,00 eurokoa dela, hizkuntza normalizazioaren eta sustapenaren mesedetan, jarduera hori osorik euskaraz burutzen bada.

Era berean, administrazio batzarrek, beren urteko egitarauaren barruan, beste kultura jarduera batzuk sustatu ahal izango dituzte, eta laguntza jaso ahal izango dute horren interesean oinarrituta.

c) Zuzeneko kontzertuak eta musika eta DJ: ehuneko 50eko diru-laguntza emango da zuzeneko musika emanaldiek, gehienbat, berbenek, kontzertuek eta errezitaldiek sortutako gastuetarako. Gehieneko muga 3.500,00 eurokoa da administrazio batzar bakoitzeko.

Musika- eta kultura-jardueretan, 500,00 euro handitu ahal izango da dirulaguntza, kontratatutakoen artean gutxienez ehuneko 40a emakumeak badira.

d) Komun publikoen eta karpnen edo antzeko elementuen alokairua: komun publikoak alokatzeko dirulaguntza ehuneko 50ekoa izango da. Karpei edo antzeko elementuei dagokienez, dirulaguntza ehuneko 50ekoa izango da, baina gehienez 800,00 euro erakunde bakoitzeko.

Murgiako Administrazio Batzarra: udalerriko hiriburua denez eta ez duenez jaiegun propiorik, 3.000,00 euroko dirulaguntza gehigarria emango zaio batzar honi kultura- edo musika-jarduerak antolatzeko, bi aldeek behar bezala adostuta. Era berean, udalak garbiketa mekanikoko zerbitzua emango du jai-esparruetan, San Migel jaietan, bi aldeek adostuta. Komun publikoak alokatzearen ondoriozko gastua ere udalaren kontura izango da.

Ez da inolaz ere diru-laguntzarik emango janariak, garaikurrek, opariak eta sariak sortutako gastuetarako.

Era berean, administrazio batzarrek honakoak aurkeztu ahal izango dituzte: jai batzorde bakarra dagoela egiaztatzen dituzten agiriak eta horren izenean egindako kudeatzeko ardura. Diru-laguntzei buruzko agiri guztiek administrazio batzarraren oniritzia izango dute, eta horixe izango da erantzule subsidiarioa.

Emandako diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, kontzejuek jarduera horiek hasi aurretik eta, beti ere, azaroaren 30ea baino lehen, herriko jaietako egitarauan jasotako jardueren aurrekontua aurkeztuko dute. Egitarau hori bukatu ondoren eta, beti ere, jarduneko urteko abenduaren 29 baino lehen, honakoak aurkeztuko dira: kasuan kasuko diru kopuruen jatorrizko fakturak, ordainagiriak eta horien guztien kopiak, konpultsatzeko.

3.4. Kale eta bideen garbiketa: kontzejuaren hirigunea osatzen duten kale, bide eta urbanizatuen dauden eremuetan sasiak kendu eta horiek erabat garbitzeko eta arekak eta erregistroak garbitzeko bi jarduketari dagokien gastuaren diru-laguntza. Garbiketa-lan horiek behar bezala egin ahal izateko, administrazio batzarrak eta udalak zein eremu garbituko diren adostuko dute, horiek behar bezala mugatuta. Ekarpn hau udalak zuzenean zerbitzua emanez egingo da.

3.5. Nekazaritza eta abeltzaintza bideen sarearen mantentze lanak egitea: atal honi buruzko kasuan kasuko partidarekin, ehuneko 50eko partaidetza izango da hala erabakitzen duten kontzejuen nekazaritza eta abeltzaintza bideen garbiketari. Onik zaintzeko irizpideetan oinarriturik, garbiketa horrek, hau da, areketatik sastrakak kentzeak, behar bezalako maiztasuna izango du, eta enpresa bakarra kontratatuko da lan hori egiteko. Lehentasuna emango zaio herriko enpresaren bati lan hori esleitzea.

Diru-laguntza hori eskuratzeko, kasuan kasuko ekainaren 29 baino lehen dagokion eskaera aurkezteaz gain, kontzejuek hitz eman behar dute gutxienez bi (2) urterik behin egingo dutela kontzeju sare osoko nekazaritza bideen garbiketa.

Azpiegitura horien mantentze lanak behar bezala egin ez dituzten kontzejuek etorkizunean diru-laguntza horiek eskuratu nahi izanez gero, lan horiek sortutako gain kostua ordaindu behar dute.

3.6. Neguko kanpaina: kontzejuaren titularitateko kaleetatik elurra kentzeko gastuaren ehuneko 50eko diru-laguntza, makinak erabiltzearen prezioa orduko 70 eurokoa (BEZa aparte) dela oinarri hartuta. Udalaren titularitateko kaleak direnean, diru-laguntza gastu osorako izango da.

Emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuek honakoak aurkeztu behar dituzte abenduaren 15ea baino lehen: gastuari dagozkien diru kopuruen jatorrizko fakturak edo ordainagiriak eta horien fotokopiak, konpultsatzeko. Neguko kanpaina aurreko urteko abenduaren 1etik indarreko urteko azaroaren 30era artekoa izango da.

3.7. Kudeatze gastuetarako diru-laguntza orokorra: administrazio batzar guztiek jasoko dute urtea bukatu baino lehen landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta udalari ordaindu dioten diru kopuruaren ehuneko ehuna, diruzainak zerga hori kobratu izana adierazten duen egiaztatzea egin eta gero.

3.8. Jabetza Erregistroan ondasun eta eskubideen inbentarioa eta ondasunen inskripzioa eguneratzea. Gehienez ere, kostuaren ehuneko 50eko diru-laguntza emango da. Horretarako eskabideak kontzejuek eskatuko dituzte 2025eko irailaren 30era arte.

#### 4. Aurrekontu kreditua

4.1 apartatuko dirulaguntzen kasuan, g) apartatuari dagozkionak izan ezik, gastu horiek babesten dituen aurrekontu-partida 943.734.000 da, 200.000,00 eurokoa, "administrazio-batzarretarako dirulaguntza" izeneko eta Zuiako Udalaren 2025eko ekitaldiko gastuen aurrekontuko g) apartatuko dirulaguntzen kasuan, gastu horiek babesten dituen aurrekontu-partida 171.434.000 da, 20.000,00 eurokoa.

4.2 eta 3.4 ataletako diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2025eko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko diren partidak: bata, "administrazio batzarrentzako dirulaguntzak argiteri publikorako" izeneko 165.434.000 partida, 60.000,00 eurokoa, eta, bestea, 30.000,00 eurokoa "kaleen garbiketa, udala eta kontzejuk" (udalak zuzenean emandako zerbitzu bat baita) izeneko 163.227.030 partida.

4.3 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2025eko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarren jaietarako diru-laguntza" izeneko 338.434.000 partida, 44.000,00 eurokoa.

4.5 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2025eko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: nekazaritza eta abeltzaintza bideak garbitzeko diru-laguntza izeneko 410.227.011 partida, 14.000,00 eurokoa. Udalak gastuaren ehuneko 50a ordainduko du eta beste ehuneko 50a kontzeju eskatzaileei jasanaraziko die.

4.6 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2025eko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "kontzejuentzako diru-laguntza elurra kentzeko" izeneko 134.434.000 partida, 8.000,00 eurokoa.

4.7 ataleko gastuetarako, hona Zuiako Udalaren 2025eko gastuen aurrekontutik erabiliko den partida: "diru-laguntzak, administrazio batzarrak" izeneko 943.434.000 partida, 8.500,00 eurokoa.

Azkenik, 3.8. Ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta ondasunak jabetza-erregistroan inskribatzea ataleko gastuak 2025eko ekitaldiko 943.734.010 (inbentarioa) partidaren kargura diruz lagunduko dira. Horren zenbatekoa 2.000,00 eurokoa da.

#### 5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Udalak, inguruabar bereziak edo egokierakoak oinarri hartuta, zenbait eskaerari tratua berezia eman ahal izango die, udalerrientzat duten interes bereziarengatik. Holakoetan, programaren kostu osorainoko aldearen ehuneko 100era heldu ahal izango da.

Oraingoan deitutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozeinekin, horiek obra edo zerbitzuaren kostuaren ehuneko 100etik gorakoak direnean izan ezik. Horrelakoetan, udalaren kargurako ekarpena ehuneko 100 horretara heldu arte gutxituko da.

Diru-laguntzen gutzirako zenbatekoa inolaz ere ezin daiteke izan Zuiako Udalak bere aurrekontu orokorrean helburu horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

#### 6. Eskabideak aurkeztea

Eskabidea eta dokumentazioa Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

## 7. Agiriak

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu). Inprimaki bat bete beharko da proiektu bakoitzeko.

Halaber, egiaztatu beharko dute egunean dituztela gizarte segurantzarekiko eta ogasunarekiko betebeharrak, edo, hala badagokio, udalari kontsulta egiteko baimena eman beharko diote.

Erakunde eskatzaileek gehienez ere hamar egun izango dituzte nabaritutako akatsak konpontzeko eta, horrela ez egitekotan, eskabideari uko egiten zaiola ulertuko da, izapide gehiagorik gabe. Hala ere, behar den bezala justifikatutako arrazoiengatik, luzatu ahal izango da epe hori.

Datu pertsonalak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie zerrendatutako dokumentazioaren zati gisa aurkeztutako datuak oinarri hauetan arautzen den deialdiaren urteko diru-laguntza emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

## 8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Egindako eskaerak aintzakotzat hartu ahal izateko, horiek osorik beteta egon beharko dira, eta udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dira, haietako bakoitzaren zertzelada guztiak zehaztu ahal izatearren. Bereziki, era fidagarrian ziurtatu beharko da obraren eta izan litezkeen desbideraketen finantzaketa osoa.

## 9. Erantzukizuna finantzaketan

Oinarri arautzaile hauen kontura ematen diren laguntzen onura jasotzen duten toki erakundeek obra, zerbitzua eta, halakorik izanez gero, horietako ordainsariak osorik finantzatzeko ardura izango dute, bai eta laguntzak emateko aurreikusitako baldintza guztiak betetzeko ere.

## 10. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta erabakiko da diru-laguntzak ematea edo ukatzea, udalean ordezkaturik dauden taldeetako partaide guztiek osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judizialki aurkeztu behar dizkioten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri Administrazioen Administrazio Prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

## 11. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntzak kobratzeko, oinarri hauetan xedatutako berariazko kasuetan izan ezik, dagozkien fakturen eta ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak eta fotokopiak aurkeztu beharko dira, konpultsatzeko.

Diru-laguntzen konturako ordainketak, erakunde onuradunek behar bezala onetsitako obra ziurtagiriak eta jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutakoak aurkeztu ondoren eta udalak izendatutako teknikari eskudunek -hala balegokio- haiek onartu ondoren egingo dira.

Obrak izanez gero, obra amaitutakoan enpresa esleipendunari egindako ordainketen egiaztagiriak bidali beharko ditu toki erakundeak. Egiaztagiri horiek bidaltzeko hiru hilabeteko epea egongo da.

Beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa bidali beharko du tokiko erakundeak, ordainagiriekin batera. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Obraren likidazioari edo azkeneko ziurtagiriari dagokion diru-laguntza ordaintzeko baldintza izango da bete beharreko administrazio dokumentu guztiak udalari bidaltzea, lana egin aurrekoak nahiz egin bitartekoak direla, hala nola aktak, hasierakoa, zuinketakoa eta harrerakoa, azkeneko ziurtagiria, etab.

Diruz lagundutako lanak justifikatzeko eperik luzeenak ezingo da diru-laguntza ematen ekitalditik haratago joan, eta horrela ezean, ezeztatu egingo da.

Kontzejuak urteko kontuak aurkeztu eta diruz lagundutako lan bati dagokion faktura bat ordaintzea ezinezkoa zaiola erakutsiko balu, udalak fakturaren zenbatekoa ordainduko du kontzejuaren kontuan. Ordainketa hori diru-laguntzaren konturako abonua izango da. Kontzejuak hartzekodunari ordaindu diola ziurtatu beharko du ordainagiria aurkeztuz, udalaren transferentzia jaso eta 10 eguneko epean. Edozein kasutan, ordainagiriak eta diruz lagundutako gastua zuritzeko dokumentazioa aurkezteko epea aurreko paragrafoan adierazitakoa izango da. Udalak konturako abonua gisa ordaintzen duen kopurua inoiz ere ez da izango egokitutako diru-laguntzaren kopurua baino handiagoa.

Proiektua eta segurtasun eta osasun planak idazteko ordainsarietarako diru-laguntzen ordainketa jatorrizko faktura edo kontu edo fotokopia konpultsatua aurkeztu ondoren egingo da, obra esleitu eta gero.

Obraren zuzendaritzako eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsarietarako diru-laguntzen ordainketa, erakunde onuradunak lanari dagokion azkeneko likidazioa onartzen duenean egingo da.

## **12. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea**

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu beharko du aurkeztutako proiektua. Orobat, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, bai eta laguntzak eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio derrigorrezkoa dela Zuiako udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan eta horren inguruan egiten diren karteletan, idazkietan edo dokumentuetan. Elementu horiek guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira. Eta beti ere hizkuntza ez sexista erabiliz, eta genero estereotiporik gabe.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunak deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea ireki eta gero:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitutakoan, hori aurkezteko eskaera esplizitua eginda, hori aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharretakoa bat betetzen ez bada.
- Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

**13. Diru-laguntza aldatzea**

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen den edozein aldaketak, ebazpena aldatzeko bide eman dezake.

**14. Diru-laguntzen bateragarritasuna**

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira kontzejuari beste erakunde, entitate edo organismo publiko edo pribatu batzuek eman ahal dioten bestelako diru-laguntzekin.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

**15. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

**16. Arau hausteak eta zehapenak**

Diru-laguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteak.

**17. Legeria gehigarria**

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Zuiako Udalaren diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta diru-laguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.